



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 157/2023 FORU DEKRETUA, urriaren 11koa, Foru Liburutegiak, Foru Artxibo Historikoak eta Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoak erreprografia-zerbitzuak ematearen ondoriozko prezio publikoa aplikatzea erabaki eta arautze hori garatzen duena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 131/2020 Foru Dekretuaren arabera (131/2020 Foru Dekretua, abenduaren 29koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duena), sail horri dagokio, besteak beste, Bizkaiko Foru Liburutegiaren, Bizkaiko Artxibo Historiko Probintzialaren eta Bizkaiko Foru Artxibo Historikoaren eraikinak eta haien jarduerak kudeatzea.

Foru Liburutegiaren eta Foru Artxibo Historikoaren erreprografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak ezarri ziren, batetik, ikerketarako liburutegi publiko bat eta ikerketarako artxibo bat zeudelako, biak Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoak, eta, bestetik, haien funtsen erreprografia-zerbitzuak zeudelako, erabiltzaileei eskaini izan zaizkienak.

Eremu horietako prezio publikoen erregulazioa edo arautzea Bizkaiko Foru Aldundiaren bi foru dekretutan jasota dago: 181/2002 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, Bizkaiko Foru Liburutegiak erreprografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoa aplikatzea erabaki eta arautze horri garatzen duena, eta 141/2008 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Bizkaiko Foru Artxibo Historikoak erreprografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoa aplikatzea erabaki eta arautze hori garatzen duena.

Bestalde, Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoa Estatuaren titulartasuneko artxibo bat da, eta haren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoari transferitu zitzaion, ekainaren 24ko 897/2011 Errege Dekretuaren bidez. Estatuaren titulartasuneko artxiboak kudeatzeari buruzko irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren eginkizunak eta zerbitzuak gehitzeari buruzkoa da errege dekretu hori. Ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 12ko 87/2018 Foru Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren 2018ko ekainaren 4ko Erabakia onartu zen, Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutako Estatuaren titulartasuneko artxiboen kudeaketaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa.

Zerbitzu eta elementu kuantitatiboak eguneratzeko premia larria eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko hiru administrazio-unitateen egungo mende-kotasuna direla-eta, une egokia da erregulazio banakako eta bateratu hori egiteko.

Araudi bakar eta bateratu bat ezarri nahi da Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren menpeko hiru administrazio-unitate horien erreprografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoei aplikatzeko, egungo errealitatera egokitutako elementu kuantitatibo batzuk ezarriz, helburu hirukoitzarekin:

- Lehenik eta behin, beharrezkoa da Probintziako Artxibo Historikoak zerbitzu hori ematea arautzea, gaur egun ez baitu halakorik.
- Bigarrenik, emandako zerbitzuen katalogoa eguneratu nahi da; izan ere, bai Foru Liburutegian bai Foru Artxibo Historikoan hasierako erregulaziotik igaro den aldian, zenbait zerbitzu-eskari sortu dira, indarreko araudian jasota ez zeudenak, eta, aldi berean, desagertu egin da indarrean zeuden beste prestazio batzuen eskaria.
- Azkenik, beharrezkoa da indarrean dauden prezioen zenbatekoak eguneratzea, emandako zerbitzuen kostuak estaltzen jarrai dezaten, Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasei, Prezio Publikoei eta bestelako Zerga Baliabideei buruzko ekainaren 26ko 4/1990 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutakoa betez.



Foru dekretu hau izapidetzean, kontrol ekonomikoari buruzko txostena egin da, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan, generoaren arabera-ko eraginaren aurretzeko ebaluazioa egiteari buruzkoan, xedatutakoa bete da.

Halaber, foru dekretu hau izapidetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duenak, xedatutakoa bete da.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT:**1. artikulua. — Xedea**

Foru Dekretu honen xedea da Foru Liburutegiak, Foru Artxibo Historikoak eta Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoak erreprografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoa arautzea.

2. artikulua. — Ordaintzera behartuak

Ordaintzera behartuta daude Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan 3. paragrafoan aipatzen diren pertsona fisikoak, juridikoak eta erakundeak, baldin eta Foru Liburutegiaren, Foru Artxibo Historikoaren eta Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoaren erreprografia-zerbitzuen onuradun badira.

3. artikulua. — Kobrantza

Prezio publikoa zerbitzua ematen den unean eskatu ahal izango da.

4. artikulua. — Osagai kuantitatiboak

Bat. Prezio publiko hau, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne, honako tarifa hauen arabera exijituko da:

Kontzeptua Concepto	A-4 (€)	A-3 (€)
ZURI-BELTZEKO FOTOKOPIA FOTOCOPIA EN BLANCO Y NEGRO	0,10	0,20
KOLORETAKO FOTOKOPIA FOTOCOPIA EN COLOR	0,50	1,00
PAPEREAN INPRIMATZEA (MIKROFILMETIK EDO INTERNETETIK), ZURI-BELTZEAN IMPRESIÓN EN PAPEL (DESDE MICROFILM O INTERNET) EN BLANCO Y NEGRO	0,10	0,20
PAPEREAN INPRIMATZEA (MIKROFILMETIK EDO INTERNETETIK), KOLORETAN IMPRESIÓN EN PAPEL (DESDE MICROFILM O INTERNET) EN COLOR	0,50	1,00
PAPEREAN INPRIMATZEA (ALDEZ AURRETIK IRUDI DIGITALA EGINDA), ZURI-BELTZEAN IMPRESIÓN EN PAPEL (PREVIA CAPTURA DIGITAL) EN BLANCO Y NEGRO	0,20	0,20
PAPEREAN INPRIMATZEA (ALDEZ AURRETIK IRUDI DIGITALA EGINDA), KOLORETAN IMPRESIÓN EN PAPEL (PREVIA CAPTURA DIGITAL) EN COLOR	0,60	1,00
IRUDI DIGITALA (PDF, JPG), ZURI-BELTZEAN EDO KOLORETAN (JATORRIZKOAREN ARABERA) CAPTURA DIGITAL (PDF, JPG) BLANCO Y NEGRO O COLOR (SEGÚN ORIGINAL)	0,15 € irudiko 0,15 € imagen	
KOPIAK ARTXIBO DIGIALETAN (kalitate handiko PDFak TIFFetik abiatuta - 300ppp-tik gorako bereizmena) COPIAS EN ARCHIVOS DIGITALES (PDF alta calidad a partir de TIFF - resolución a partir de 300 ppp)	5,00 € irudiko 5,00 € imagen	
GRABATZEKO EUSKARRIA (CD-ROMa) SOPORTE PARA GRABACIÓN (CD-ROM)	2,00	
LIBURUTEGIKO TXARTELEN KOPIAK INPRIMATZEA IMPRESIÓN DE DUPLICADOS DE CARNÉS DE LA BIBLIOTECA	1,30	



Foru Artxibo Historikoaren argazkia

Inprimatzeak:

1. A4 paperan inprimatze digitala: 1 euro.
2. Inprimatze digitala paper berezian: 2 euro.

Digitalizatzeak:

1. .jpg fitxategia (300 puntu hazbeteko bereizmena): 3,50 euro.
2. Euskarri digitalerako tarifa gehigarria: CD 1 euro; Pendrive 8 GB 3 euro; Pendrive 16 GB 6 euro.

Prentsa:

1. Barnean: 20 euro.
2. Barnean orrialde bikoitza: 42 euro.
3. Lehen orrialdea: 46 euro.
4. Barnean eta lehen orrialdean: 53 euro.
5. Barneko posterra: 57 euro.

Ikusentzuneke ekoizpenak (TB, irratia etab.):

1. Albiste programa: 57 euro.
2. Kultura emankizunak: 53 euro.
3. Lehiaketak: 96 euro.
4. Dokumentalak (TB, bideo, DVD etab.): 76 euro.

Argitaletxe ekoizpenak:

1. Barnean: 40 euro.
2. Lehen orrialdea: 100 euro.
3. Barnean eta lehen orrialdea: 115 euro.
4. Azken orrialdea: 57 euro.
5. Eskola liburua, barnean: 30 euro.
6. Eskola liburua, Lehen orrialdea: 66 euro.

Multimedia ekoizpenak:

1. Programa barnea: 40 euro.
2. Abiatze pantaila: 115 euro.
3. Pantaila atzealdeak: 130 euro.
4. Menuak: 132 euro.
5. Lehen orrialdea (kutxa): 115 euro.

Publizitatea:

1. Liburuxka: 40 euro.
2. Egutegiak eta displayak: 80 euro.
3. Oroitidazki , enpresa zorion txartelak: 80 euro.
4. Prentsa: 110 euro.
5. Publizitate hesia: 196 euro.
6. Telebistako iragarkiak: 393 euro.
7. Ikus-entzunezko promozioak: 80 euro.
8. Web internet: 80 euro.



Unean uneko emanaldiak:

1. Zinematografikoak: 100 euro.
2. 1-5 diapositiba: 40 euro.
3. 6-10 diapositiba: 36 euro.
4. 11-25 diapositiba: 32 euro.
5. 26-50 diapositiba: 28 euro.

Paper dendako gaia:

1. Egutegiak: 76 euro.
2. Posterrak: 136 euro.
3. Posta txartelak, kromoak eta antzekoak: 57 euro.
4. Karpetak, albumak etab.: 76 euro.

Beste erabilpenak:

1. Kutxak, etiketak, poltsak, elastiko eta antzekoak: 134 euro.
2. Lokal publikoetako argazki-dekorazioa: 96 euro.
3. Negozio pribatuetan irudien erreproduzioen erakusketa iraunkorra: 40 euro.
4. Aldi baterako erakusketak, merkataritza helburuekin: 76 euro.
5. Jokoak orokorreen: 134 euro.
6. Joko hezigarriak: 76 euro.

Bi. Foru Artxibo Historikoaren argazki-atalari dagokion prezio publikoa ordaintzera behartuta dauden pertsonen aplikatu beharreko tarifak %90eko hobaria izango du, baldin eta erakunde publikoak edo irabazi-asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoak badira eta ikerketa, kultura- edo gizarte-lanetarako dokumentazioa behar badute. Kasu horietan, irabazi-asmorik gabeko jardueraren garapena egiaztatu egin beharko da.

5. artikulua. — Kudeaketa eta likidazioa

Bat. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari dagokio prezio publiko hori kudeatzea eta likidatzea.

Bi. Zerbitzua ematean, dagokion autolikidazioa egingo da. Autolikidazio hori eskuditan edo Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako prestatutako kontu korrontean sartuko da, horretarako bereziki prestatutako agiri baten bidez.

Hiru. Foru dekretu honetan xedatu ez den orori dagokionez, batez ere epeen araubideari eta zorra ordaintzeko tokiari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Dirubiltetari buruzko Erregelamenduan xedatutakoa beteko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILE

Xedapen Indargabetzaile Bakarra. — Arauen indargabetzea

Foru dekretu hau indarrean jartzean indargabeturik geratuko dira foru dekretu hauek: 181/2002 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, Bizkaiko Foru Liburutegiak erreprografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoa aplikatzea erabaki eta arautze horri garatzen duena, eta 141/2008 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Bizkaiko Foru Artxibo Historikoak erreprografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoa aplikatzea erabaki eta arautze hori garatzen duen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen Azken Xedapena. — Arauen gaikuntza

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko eta Ogasun eta Finantza Saileko titularrei baimena ematen zaie foru dekretu hau garatu eta ezartzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.



Bigarren azken xedapena.—Indarrean jartzea

Foru dekretu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2023ko urriaren 11n.

Ogasun eta Finantzako foru diputatua,
ITXASO BERROJALBIZ ZABALA

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA